

# Giza Jakintza Zabaltzen Euskalerrian

Harvard'ko Unibersidadean irakusten ari da Levine irakaslea. Jaun su Giza-Jakintza edo Antropologia jakintzan "doktor" degu ta bere adierik jakintza orian aurreratzeko lanak bere ardura-pean ditu, irakaste on. Euskalerrian sakon aztertzeko gogoa sortu zala ta or etorri da Lapurril aldera angu erri bietan bere jakintza lana egitera.

Ahete ta Makea errixkak aukeratu ditu ENuskal-gizona ta gizarte giroa nolakoak diran ikusteko. Erri oietan hera ta bere lagunak, guziak oso afinak lan arietan, bertako gizonen neurriak ariu, odola atera ta abar ariuko dira. Zazpikordik gora izango dira erri oietako historianak eta or ariuko diran jakintzuak diruz eta aztertzeko tresnaz oso jantziak etorri dira beren lana burutzera.

Gizona 'es da gorputza bakarrik. Orrez gain eta bere alderdi guietanara joaz, auzua ta gizaidea, diru-giroa ta abar, gizariek erakusteko ta sakontzeko gai asko ta asko oi ditu. Sali auzg guziak ongi aztertuak izango dira jakintzu oien bidez erri oi oietan. Oietako lanak leu ere egiazk izan dira beste gure erri basteetan. Bat alfateko, Beasain'en, irakaste onki beronek egia zuan, eta orduan jakin ziran gauzak izaillean gordeak izan dira, inoren ikutuko konturik zabaltzeak. Izenak izillik gordetzen dira, bezar eta laiorik ez du bere izenik galitako ariariurki onelako aztoraketa lanetan.

Jakintzu auzan lana ikusita, gure arteko jendea erri esan bearra degu, sail auzetan asku ikusi bearra degu. Gure dirudunak probetxu auzidko eginkizunak ar dituzakete aude ontalik, jakintza auzetan mundu guzta oso sartu dago, ta alderdi bakoitzeko gizaidea eta gizaazterketak, asku baiño asku laguntzen dituzte erri bakoitzeko espiritu ta bizi-legeak ukonki ikasteko.

Ikas dezagan kanpokoengandik ikas-sail auzk auzakotzat aritzen eta gure errazten molasa ezagutu nai ba-degu, sala galitzen gure adierik, onelako jakintza bideak aritzen. Lurpeko letze zuloak, mitzen dabiltzanak, lau altagarria egiten dituzte. Baiña jakintzurik bikaina ta bearrera, gizona ta bere inguruko giza-bideak aztertzen dituzana da.

# Jose Luis' i karta idikia

Juan San Martin

Jose Luis:

Aspaldiko ordez artu dizkiat ire berri gareztiak. Garezti bezin jakin-garriak, noski. Esku artean diat ik irailaren 22-an egin idaken gutuna. Arriuko aiz ZERUKO ARGIA-tik agirian erantzutea, Baiña, iri erantzutekoak agirian jartzea merezi ditek, darabigun gure eskueltzale guzieri eta eskaldun guzieri ajala zaielako. Beraz, barkatuko didak erantzuteko era onegaitik.

Ez nenkiaken, *Diogenes zaarren komedia* (Z. ARGIA, 134-g. zenbakian) idatzi nuanean, ire eskuetara irutxiko zanik. Arriututa utzi au. Aiu zuzen ere, arriutuko izaki. Orren beltza ez dukala ikusten gaurko jendea iri buruzkoa? Bear bada, orrela pentsetekoak, euzer eskueltzale izango dituk. Baiña, euzer aitorzen dukan bezela, nire kezka irea duk.

Gogorrak esan ba dizkiat ere, egiegizko gabe. Sinistu zak. Gure arteko lasakeriak beldurzen natxeko. Ainbeste ta ainbeste jardutzen bai dituk, ago zabalik, gure etorkizunaz itzaropenez, eskuak boltziloetan sartuta uztekeriz jarduzen, ezer egin gabe ta ezer egiteko asmurik gabe. Baiña, arto, munduan onenak gerala sinisturik.

Apatia beldurgaririk orrek mintzen natxeko. Ik ondo dakik sakin landu gabe ez dagoala itzaropenik. Gizonak berak landu dituzakeala bere etorkizuna eta destinoa. Ik ba dakik ametsak ames direla egintzak bere indarra erakusten ez ba dik. Ik ba dakik ez dala aski lurra eta jatortia

maitatzea barne-gogozko izanari eusten ez ba diagu. Ik ba dakik izanaren errealdadea emen eta orain-tze dala. Ik ba dakik momentu guzietako une bakoitzean jakitzen dala gure izan edo ez izanaren larri-miñezko egoera.

Ik, oiet eta geiago dakizkik, izan ere, ik, nik baiño-geiago sufiritu bai duk ortaz; ire sufrizta ainmazko eta aragizko dalsko. Beraz, ez diat iri leziork eman bearririk. Baiña, gure erria kezkatuko bada, ongi konprentitu ditzakeenez, gauzak gordin agertu bearra zegok. Ala ere, gordintasun geiegirik ez bai duk izango kondairaren une nekegarri onetan.

Nere kezka ta ardurak ez dituk belaxe asetzekoak. Esan bearririk ezteok garai baterik onera idazkerak askoz samurtu ta obetu diranik, eta ba gozela euskaldunak geienak konprentitzeko euskera batera. Baiña, au ere esan egin bear. Euskaldunen euskeraz egin bear dala ere esan egin bear. Ta, oraindik orremenika ikusten bai dizklagu trakerkeriak pilaka, «garbitzale» izenean. Oiangandik tokitan zegok Agirre as-tazuararren euskera jator eta gozoa.

Gaiak ere azabalago arkitzen dituk. Egia duk. Eskolak geiatuaz, eta abar.

Baiña oraindik Europatik urrutu gabiltzak. Gure txikiakerietan galdu-rik. Itsumustuka! Geure arteko setakerietan, seiatusu.

Berriz, ik jartzen didaken estadistika ejenphu ori, ez duk egizkoa gurteatz. Lenago ere maiu entzun dizkiat era ortako erroziak, baiña oker ago. Frantziako estadistikak dior ori, eunetik 58-k ez dutela sekula liburu bat ere irakurtzen, orrela izango duk. Baiña gure arteko beste gauza bat duk. Ik ez al duk uste gure errian eunetik 90 ba dirala sekula liburu bat irakurri ez dutenak? Nik baietz esango nizek. Ta, oieltatik zenbatek euskeraz? Euskalerriko liburu-dendetan, euskerazko liburu bat saldu orduko, milalak salitzen dituk erderaz.

Guretarik euskeltzale bakoitzak ere zenbat liburu ez ote dizkik erderazkoak euskerazko baten ondoan? Gaihera, erderaz euskal kulturari buruz ere zenbat ez ote dituk argitaratzen, euskerazko bat argitaratu orduko? Ta, ez natxeko orren kontra. Zoritxarez, gure erriak, er-

deraren bidez ere ez dik kultura kezkarik agertzen. Bear bada, Kata-luniia alde batera uzita, Espainia guzian ez dala nabaitzen kultura geiegirik? Besteenerrekin konparatzeak ez gaituk geronen pekatutik libratzen. Besteak beerago ikustean neurri faitzu bat oiarriri artzen dugulako. Gu, Europaren aurrean gaituk txikiak, Europaren aurrean kultura gabeak. Ta kulturaren biderik fruturik jasotzen ez duan erriak oso gaizki bear dik aurrerakoan. Ta, bai orain eta bai gero, erderazko liburuaren bearez izango gaituk jakintza-ren alderdik, kulturaren alderdik, eta baita geure kulturaren alderdik ere, ontaz ere erdezaz idatzi dalaiko. Bai-ta literaturan bertan ere, lan obeen eta itzulpen obeen premian gaituk aurrera egingo badiagu.

Guk orrela nai ez ba diagu ere, mende-mende datorkigun errealdade bizi duk orrela. Errazoi min-garria. Au, ik, nik bestean dakan gauza duk. Irizti bakoak gaituk gurea indartu bear onetan. Irizti bakoak, nere ustez ere: «eten gabe, etsi gabe, ik arte, gure kezka (gure eta neurra) sendarazten saiatzea. Ez diagu beste biderik. Ekin eta ekin; eta ideiak nortu gusan».

Au ere errealdadea duk. Ideal bat aurrera eramateko errealdade bakarra. Zergatik, orrela ez dala, aukeria eta derrotismo utsa duk. Kondaira gizonak berak egiten duenez, gure asku zegok, gure kezka, etsi gabeko lanaren bidez ideia ametsa egi biurtzea ta kondairari nai dugun etorkizuna ematea.

Beldurzen nuana duk, gure erriak duan epeltasuna, kemenik ez ta aukeria. Beldurra, orrek menderatuko ote gaituan. Guxtietsitzen diat zurerruta, munduaren gurpifik daraman marxita segitu ezinik gabiltzako. Ta, nere azalpen ezezkorra ez duk besterik, aburuzko salarzea, errikoen gogo bizkoru dedin. Lasaikerian lokarturik gelditu ez dedin. Azumendik bere «Pakea» poemaxoan esaten duana gertatu ez dedin:

Ba zijoan egun batez nire erria biziaren biderik... Ta gizonak elkar begiratuaz esan zuten: «Ba dugu pake? jarria. Inork ez zuen erantzun: lida zegoen erria».

Agur, adiskide. Besarkada estu bat.

# Egunetik egunera

Carlos Santamaria

AGORRAK'27. Satygraha, nun zaude? — India agintariak len bat len atomo-izkiltu bereganatzeko erabakia artu dute. Zer esango luke Gandhi auzidiak ai ikusteant Batzuek "ni-ziolentzia" edo "satygraha" esan ten diten dotriña oso ederra da. Ni ere amaika bider mintzatu nai beronen alde. Baiñan gaurko mundua irakaskintza ori onartzeko ez dagoa prest ezagutu bear degu. Gure gobernen egiazko maizua ez da Gandhi. Mukiabelo buzik. Eman dezagan, naitz ta oso penagaria izan: "Igarle armadunak beti garalle".

AGORRAK'28. «Ludica certamini». — "Le Monde" egunkariak dionez, orain, amariugarren eskema jardun ari dala, "garbi-mordollo" estabaida sortu da Konzilioan latinari buruz, gure artean euskerari buruz gertatu oi dan bezelaxe. Dirudienez, eskeman Ciceron'en latina erabili nai izan dute egileak, oso garbia ta dotorea. Eta, jakitua, Batzar Nagusiako Aitak ezin ulerturik gelditu dira gitenak. Adibidez, deportez esateko, "ludica certamini" itza sartu dute eta beste orrelako ingurumari asko asmatu dituzte. Ortik izkuntza guztiz adikaitza sortu zaie. Zergatik ez dituzte erabili "cultura", "responsabilitas", "civilisatio", "structura", "so-

cialisatio" ta beste itzak, gaurko izkuntzirik ateratze-koak, garbikada oien ordez? - galdetzen dute Aita batzuek... Pentsat!

AGORRAK'30. «Oraindik ez'ko jokabidea. — Adiskide batek idasten diu amariugarren eskema pa-keari dagokien zatia ezatela oso atsegin izan pazifista batzuek. Eta au, eraso atomoaren kontrolatzko zainbidez-tzat erabili ezkerre ez baidu kondenaizen atomo-bomba. Elizak onak ondo tinkatuak izan bear ditu lurreen, jakitua da. Argt dago sail ontan zazpi begiek in ibili bear dala, gobernuak ez geiegi lotzeko ta beren erriak etsaien eskuetan ez uzitako. Gauzak eta irizitai ainbesteraio atzeratuak diralarik, beste bideari Konzilioaren Aitak ezin jarraitu diote oraindik. Beraz, atomo —bomba entsegutzea, moldatzea ta gordetzea ziligela izango zaie Estaduak, Batzar Nagusiaren dotriñaren alderik. Batzuek diote au urregio Konzilioaren gaia izango dala. Ata ere baliteke ori beranduegi amar izatea. Emendik orduko zenbat milloi giza-bizi kostako da atomo-izkiltu ori? "Oraindik ez'ko politika oso ezaguna degu Elizan. Alabaña ez da beti onena izan, uste dedanez.

**MARCO LANTEGIA**  
TALLER DE PINTURA

**J. Urbina**

ETXE-BERRITZE - BIZITOKIAK  
IDAZKUNAK - PAPEL IPINTZEAK

Obras - Vivendas - Rótuulos - Empapelados

Plaza Irurosoro, s/n. Urrut. 23.129  
DONOSTIA

**ARANZADI-TAR J. M.**

Era guztietako seguroak

Barzelona'ko  
«LA CATALANA»  
Seguroetako ordezkarria  
Gipuzkoen  
S. Marcial, 33 entlo.  
Urruzte 10 19226  
DONOSTIA

Jose Antonio Berandiaran  
Kontabilidatza - (Fisikalari Fisika)  
Mayor, 2 - Urruzte 10 2711 - DONOSTIA

**Ezkongaiak ta gañontzekoak entzun**

Era guztietako mueble sukera etze ontan arkituko izate

—O—  
**«MANUFACTURAS ZARAUZ»**  
—O—

Lantokitik Etxera

DONOSTIA'n:  
Ernari kalean 7'garrena

ZARAUZ'en  
Santa Marina kalean 26'garrena

**Edizondo kirolak**

Armark, eiza ta arantza, erregal-gaiak, kamping, tennis, sky, golf, sport'erako jantziak.

AVDA. ESPAÑA, 4 - TELEFONUA 14210  
DONOSTIA'N

**RADIO - INTER**

**Saltzaillea:**

**CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.**

Beste edozein markakoa baiño iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

**Ordaintzeko erreztasan aundiak.**